EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98
Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98
Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

## KULTURA SAILA

### Zk-1653

AGINDUA, 2003ko martxoaren 5ekoa, Kultura sailburuarena, Euskadiko kirol-federazioen 2003ko kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

2000ko abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren xedea kirol-federazioen finantza-bidea arautzea da, horiei beren urteroko kirol-programetarako diru-laguntza ez itzulgarriak emanez.

287/2000 Dekretuko 3. artikuluan adierazten denez, Kultura sailburuak urtero-urtero emango du Agindua, aipatu dekretuan arautzen diren diru-laguntzak banatzeko. Kultura sailburuaren agindu horretan zehaztuko dira zenbateko diru-laguntzak emango diren, eskabideak aurkezteko leku eta epeak, diru-laguntza eskatu nahi duenak aurkeztu beharreko agiriak, laguntzak kuantifikatzeko irizpideen haztapena eta diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu behar diren agiriak.

287/2000 Dekretuan xedatzen denarekin bat, agindu honetan zehaztuko dira kontu horiek guztiak, aipatutako arauan ezarritako diru-laguntzetarako deialdia 2003ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Ondorioz, hauxe,

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-1653

ORDEN de 5 de marzo de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la convocatoria de subvenciones para financiar los programas deportivos de las federaciones deportivas vascas correspondientes al año 2003.

El Decreto 287/2000, de 26 de diciembre de 2000, tiene por objeto regular el régimen de financiación de las federaciones deportivas mediante la concesión de subvenciones no reintegrables para sus programas deportivos anuales.

El artículo 3 del mencionado Decreto 287/2000 establece que anualmente, mediante Orden de la Consejera de Cultura se efectuará la correspondiente convocatoria para acogerse a las ayudas reguladas en el citado Decreto, en el que se concretará la dotación presupuestaria, el lugar y los plazos para la presentación de las solicitudes, la documentación que deben aportar los solicitantes de las ayudas, la ponderación de los criterios de cuantificación de las ayudas así como el plazo y la documentación a aportar para la justificación de la ayuda.

Conforme a lo dispuesto por el referido Decreto 287/2000, mediante la presente Orden se concretan dichas cuestiones para la aplicación durante el ejercicio 2003 de la convocatoria de ayudas establecida por la norma mencionada.

En su virtud,

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

2000ko abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuak euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautu zuen. 2003ko ekitaldian Dekretu horren bidez araututako diru-laguntzetarako deialdian parte hartu nahi duenak hilabeteko epea izango du eskabidea aurkezteko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

*2. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko lekua.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari zuzenduko zaizkio (Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) eta Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzan edo Kultura Sailaren lurralde-zerbitzuetakoren batean aurkeztuko dira. Eskabideok zuzenean aurkez daitezke edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eskainitako bideetarik edozein erabiliz.

*3. artikulua.–* Laguntza-eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Diru-laguntzak jasotzeko eskabideekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Kirol Zuzendaritzak berak zuzenean zein Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako Kultura Atalen bitartez emandako eskabide-orria. Eskaera federazioaren legezko ordezkariak edo horren ahalordea duenak egingo du.

b) Erakundearen 2003ko ekitaldiko aurrekontua, batzar nagusiak onartua.

Eskabidearen euskarri gisa aurkeztutako aurrekontu hori egitarauka sailkaturik aurkeztuko da, eta oreka bat erakutsiko du gastu eta diru-sarreretan artean. Horrekin batera, aurrekontu berria orekatzeko konpromisoa hartzen duela adierazi behar du entitateak, jasotako diru-laguntza jasotzea espero zenarekin bat ez badator. Hori egiteko, 30 egun balioduneko epea izango du, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpena jaso, eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Federazioaren IFZaren fotokopia.

d) Zerga kontuetan bere betebehar guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiri eguneratua.

e) Banketxearen egiaztagiri eguneratua, kontu-zenbakia eskaera egin duen entitatearena dela ziurtatzeko.

f) Erakunde onuradunak eskatu dituen edo ustez jasoko dituen beste laguntza batzuen zerrenda, emango duen erakunde publiko zein pribatuaren izena eta di-

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Plazo para la presentación de solicitudes.

El plazo para la presentación de solicitudes de subvención para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por el Decreto 287/2000, de 26 de diciembre, por el que se regula la concesión de subvenciones para los programas deportivos de las federaciones deportivas vascas, en el ejercicio 2003, será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 2.–* Lugar de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones establecidas en la presente Orden se dirigirán al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes (Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, C/Donostia-San Sebastián , 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) y se presentarán en la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura o en algunos de los servicios territoriales del Departamento de Cultura, bien directamente bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 3.–* Documentación a aportar por los solicitantes de las ayudas.

Las solicitudes de subvención deberán presentarse acompañadas de la siguiente documentación:

a) Impreso de solicitud que a tal efecto será facilitado por la Dirección de Deportes, ya directamente, ya a través de las Unidades de Cultura de Álava, Bizkaia o Gipuzkoa. La solicitud será efectuada por el representante legal de la Federación o persona debidamente facultada para ello.

b) Presupuesto anual de la entidad aprobado por la asamblea general para el ejercicio 2003.

Tal presupuesto presentado como soporte de la solicitud deberá presentarse por programas, equilibrado en gastos e ingresos, acompañado del compromiso expreso de la entidad de equilibrar de nuevo el presupuesto, en caso de que la subvención recibida no se ajuste a la estimada, en un plazo de tiempo máximo de 30 días hábiles, posteriores al recibo de la Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

c) Fotocopia del N.I.F. de la Federación.

d) Certificado actualizado de hallarse al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

e) Certificación bancaria actualizada que acredite la titularidad del número de cuenta a favor de la entidad solicitante.

f) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas o que estime recibir el beneficiario, con mención de la entidad, pública o privada, que las otorgue, así como

ru-laguntzarako eskabideen egoera aipatuta: ezetsiak, erantzunaren zain, emanak eta diru-kopuruak. Horrelakorik egon ezean, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako egitarauetarako beste inongo laguntzarik ez dela eskatu egiaztatzeko jakinarazpena.

g) Kirol-egitasmoa azaltzen duen txostena. Honako hauek agertuko dira bertan:

– Federazioak antolatutako kirol-lehiaketak. Lehiaketen gutxi gorabeherako kopurua espezialitate edo azpimotaren eta kategorien arabera. Parte hartuko duten kirolari eta kluben kopurua eta parte hartuko duten kluben portzentajea Federazioan afiliatuta dauden klub guztien aldean.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak. Egingo diren jardueren zerrenda eta partaideen eta orduen kopurua gutxi gorabehera.

– Zuzendari teknikorik dagoen eta horren titulazioa, dedikazioa ordutan eta federazioarekin duen lotura.

– Parte-hartzeko kirolaren inguruan federazioak antolatutako jarduerak (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kategoria ez absolutuan kirol-selekzioek burututako jarduerak.

– Kirol-mota bertokoa den.

h) Federazioaren idazkariak lehendakariaren oniritziarekin egindako egiaztagiria, 2002ko abenduaren 31n, federazioak zituen kirolari federatuen kopurua adieraziz.

i) 2002ko abenduaren 31n, federazioak afiliatuen artean zituen goi-mailako kirolarien zerrenda.

j) Federazioak euskara zenbateraino erabiltzen duen adierazten duen txostena. Honako hauek aipatuko dira:

– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.

– Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.

– Euskarazko web orririk duen.

– Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.

– Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.

– Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.

– Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den.

*4. artikulua.*– Diru-zuzkidura.

1.– 2003ko ekitaldian, agindu honetan arautzen diren laguntzak finantzatzeko bideratu den aurrekontu-zuzkidura bi milioi seiehun eta hogeita hamar mila (2.650.000) eurokoa da.

estado de la misma,(denegada, pendiente de resolución, concedida e importe). Caso contrario, documento declarativo de no haber solicitado ó percibido ninguna otra ayuda para los programas presentados a subvención.

g) Memoria explicativa del proyecto deportivo, en la que deberá hacerse referencia a las siguientes cuestiones:

– Competiciones deportivas oficiales organizadas por la Federación. Estimación sobre el número de competiciones por especialidad o disciplina y categoría, indicándose el número de deportistas y de clubes participantes y el porcentaje de clubes participantes en relación con el número total de clubes afiliados a la Federación.

– Actividades de formación deportiva. Relación de las actividades a desarrollar, estimación sobre el número de horas y número de participantes.

– Existencia del cargo de Director/a Técnico/a. Titulación, nivel de dedicación en horas y tipo de vinculo con la Federación.

– Actividades organizadas por la Federación orientadas al deporte de participación (deporte de recreación, ocio y salud).

– Actividades de las selecciones deportivas en categoría no absoluta.

– Carácter autóctono de la modalidad deportiva.

h) Certificado expedido por el secretario o secretaria, con el visto bueno del presidente o presidenta de la federación, del número de deportistas federados a 31 de diciembre de 2002.

i) Relación de deportistas de alto nivel afiliados a la Federación a 31 de diciembre de 2002.

j) Memoria explicativa del régimen de utilización del euskara en la Federación, en el que deberá hacerse referencia a las siguientes cuestiones:

– Cursos de formación impartidos en euskara.

– Utilización del euskara en los documentos y publicaciones de la federación.

– Página web en euskara.

– Atención al público en euskara.

– Utilización del euskara en las relaciones externas de la Federación.

– Utilización del euskara en las relaciones con los miembros de la Federación.

– Utilización del euskara en el paisaje lingüístico de la federación.

*Artículo 4.*– Dotación económica.

1.– Para el ejercicio 2003, la dotación presupuestaria global destinada a financiar las ayudas reguladas en la presente Orden es de dos millones seiscientos cincuenta mil euros (2.650.000 euros).

2.– Artikulu honetan finkatu den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan hartuta, baldin eta Kultura Sailean laguntzak emateko beste egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontua ahitu gabe geratu bada. Aldaketa hori diru-laguntzak ebatzi aurretik egin behar da eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da.

*5. artikulua.–* Laguntzak kuantifikatzeko irizpideak.

Segidan zehazten diren irizpideak aplikatuz ateratzen diren zenbatekoen batuketak esango du honako agindu honen deialdian parte hartuko duten federazioei zenbateko diru-laguntza emango zaien:

1.– Federazio bakoitzak 2002 urtean bere kirol-egitarauak finantzatzeko Kultura sailburuaren 2002ko otsailaren 21eko Aginduaren babesean eskuratu zuen diru-laguntzaren erdia (%50) izango du. Agindu horren bidez ezarri zen Euskal kirol-federazioen kirol-egitasmoetarako araudia.

2.– Federazio eskatzaile bakoitzarentzako diru-kopurua zehaztu ondoren, horien guztien batuketa agindu honetako 4. artikuluan zehaztutako kopuruari kenduko zaio eta gelditzen dena irizpide hauen arabera banatuko da:

a) Kirol-egitasmoa. Puntuen %75.

Ondoko hauek hartuko dira kontuan kirol-egitasmoa balioesteko:

– Federazioak antolatutako kirol-lehiaketak.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak.

– Zuzendari teknikorik dagoen.

– Parte-hartzeko kirolaren inguruan federazioak antolatutako jarduerak (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kategoria ez absolutuan kirol-selekzioak burututako jarduerak.

– Kirol-mota bertokoa den.

b) Lizentzia federatua duten kirolarien kopurua. Puntuen %5.

c) Euskara. Puntuen %10.

– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.

– Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.

– Euskarazko web orririk duen.

– Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.

– Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.

– Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.

2.– El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

*Artículo 5.–* Criterios de cuantificación de las ayudas.

El importe de la subvención a conceder a las federaciones que se acojan a la convocatoria regulada en la presente Orden se calculará mediante la suma de las cantidades que resulten de la aplicación de los criterios que a continuación se indican:

1.– El cincuenta por ciento (50%) de la subvención que hubieren obtenido para financiar sus programas deportivos del 2002, al amparo de la Orden de 21 de febrero de 2002, de la Consejera de Cultura, por la que se establece la normativa para los programas deportivos de las federaciones deportivas vascas.

2.– Una vez determinadas las cantidades correspondientes a cada federación solicitante, el importe global de las mismas se detraerá del que se indica en el artículo 4 de la presente Orden, distribuyéndose la cantidad resultante con arreglo a los siguientes criterios:

a) Proyecto deportivo. 75% de los puntos.

Se valorará el interés del proyecto deportivo presentado atendiendo a las siguientes cuestiones:

– Competiciones deportivas oficiales organizadas por la Federación.

– Actividades de formación deportiva.

– Existencia del cargo de Director/a Técnico/a.

– Actividades organizadas por la Federación orientadas al deporte de participación (deporte de recreación, ocio y salud).

– Actividades de las selecciones deportivas en categoría no absoluta.

– Carácter autóctono de la modalidad deportiva.

b) Número de deportistas con licencia federada. 5% de los puntos.

c) Euskara. 10% de los puntos.

– Cursos de formación impartidos en euskara.

– Utilización del euskara en los documentos y publicaciones de la federación.

– Página web en euskara.

– Atención al público en euskara.

– Utilización del euskara en las relaciones externas de la Federación.

– Utilización del euskara en las relaciones con los miembros de la Federación.

– Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den.

d) Autofinantzaketa maila. Puntuen %5.

e) Goi-mailako kirolarien kopurua. Puntuen %5.

3.– Aurreko paragrafoan zehaztutako balorazioa egin ondoren, federazio bakoitzari dagokion gainontzeko diru-kopurua honela kalkulatuko da: federazio bakoitzak lortutako puntuazioak federazio guztien puntuazioarekiko erakusten duen portzentajea aplikatuko zaio artikulu honen 2. puntuan aipatzen den guztirako kopuruari.

*6. artikulua.*– Diru-laguntzak ordaintzeko prozedura.

1.– Agindu honetako 3. artikuluan eskatzen den dokumentazio guztia eta eskabidea aurkeztu ondoren, Kirol zuzendariak ebazpen bat emango du onuradun bakoitzak jasoko duen aurrerapena zenbatekoa izango den zehazteko eta ordainketa egiteko, 287/2000 Dekretuko 5. artikuluan xedatutako ordainketa-arautegian xedatzen dena betez.

2.– Bigarren ordainketa aurreratua Kirol zuzendariaren ebazpen baten bidez egingo da, betiere aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu eta onartu ondoren. Bigarren zati hori aipatutako urteko diru-laguntzaren %25 izango da.

3.– Diru-laguntzaren gainerakoa, eskaera egin den urterako onartutako diru-laguntzaren guztia osatu artekoa, alegia, aurreratutako ordainketetan emandako zenbatekoak justifikatu ondoren likidatuko da.

*7. artikulua.*– Diru-laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Diru-laguntzaren bat jaso duten federazioek diru hori agindu honetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako helburuetarako erabili dela erakutsi behar dute 2004ko otsailaren 15a baino lehenago, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

a) 2003 urteko balantze ekonomikoa.

b) Burututako kirol-programari buruzko txosten zehaztua. Horrekin batera, eskabidean zehaztutako jarduerak burutu direla erakusten duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

c) Eskabidea aurkezteko momentuan hartuko lituztenik ez jakiteagatik adierazi gabe utzi eta, ondoren, xede berberaz jasotako gainerako laguntza guztien aipamena.

d) Gastuaren justifikazioa.

Gastuen justifikazioa jatorrizko fakturak aurkeztuz egingo da, edo, bestela, Kirol Zuzendaritzak zein Kirol Zuzendaritzaren edozein lurralde-zerbitzuk konpultsatutako fotokopiak erakutsiz. Jasotako diru-laguntza-

– Utilización del euskara en el paisaje lingüístico de la federación.

d) Nivel de autofinanciación. 5% de los puntos.

e) Número de deportistas de alto nivel. 5% de los puntos.

3.– Efectuada la valoración descrita en el apartado anterior, el porcentaje que la puntuación alcanzada por cada federación represente del total obtenido por todas las federaciones se aplicará a la cantidad total resultante a la que se refiere en el punto 2 de este artículo, para la determinación del importe restante de la subvención correspondiente a cada federación.

*Artículo 6.*– Procedimiento de pago de las ayudas.

1.– Una vez presentada la solicitud de subvención junto con la totalidad de la documentación exigida en el artículo 3 de la presente Orden, se librará un primer pago anticipado, mediante resolución del Director de Deportes en la que se determinará el importe que con carácter anticipado recibirá cada beneficiario, de acuerdo con el régimen de libramientos establecido en el artículo 5 del Decreto.

2.– El segundo pago anticipado se librará, mediante resolución del Director de Deportes, una vez presentada la justificación de la subvención concedida el año anterior y aprobada la misma, por un importe equivalente al 25% de la subvención del mencionado año.

3.– El resto de la subvención, hasta alcanzar el total de la ayuda aprobada para el año para el que se solicita la misma, se liquidará una vez justificadas las cantidades concedidas en los libramientos anticipados.

*Artículo 7.*– Plazo y documentación a aportar para la justificación de la ayuda.

1.– Las federaciones beneficiarias de subvenciones deberán acreditar y justificar antes del 15 de febrero de 2004 la aplicación de la subvención al destino establecido en la presente Orden y en la resolución de concesión mediante la presentación de la siguiente documentación:

a) Balance económico del año 2003.

b) Memoria detallada del proyecto deportivo ejecutado acompañada de la documentación pertinente justificativa de haberse desarrollado las actividades contempladas en la solicitud.

c) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto, de cuya efectividad no se tuviera conocimiento en el momento de presentación de las solicitudes.

d) Justificación de gasto.

La justificación del gasto se realizará mediante la presentación de facturas originales, o fotocopias debidamente compulsadas por la Dirección de Deportes o cualesquiera de los servicios territoriales del Departamen-

ren baliokidea izango da justifikazio hori eta ebazpenean finkatutako baldintzetara egokitutakoa.

e) Eskabidea egiterakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoa aurkeztu duten federazioei dagokienez, konpromiso hori betetzen dela erakusten duten agirien aleak.

2.– Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak dagokion zuriketa-ebazpena emango du eta, hala badagokio, ordurako ordainduta dagoen diru-laguntzatik zein diru-kopuru itzuli behar den zehaztuko du, eta, hori gertatuz gero, bi hilabeteko epea emango da, zuriketa-ebazpena jasotzen den egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehena***.– Agindu honek administrazio-bidea ixten du. Bere aurka, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian; horretarako, bi hilabeteko epea izango da, honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

***Bigarrena***.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko martxoaren 5a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

to de Cultura, por una cuantía equivalente a la subvención concedida, en las condiciones fijadas en la resolución.

e) En caso de aquellas federaciones que hayan acompañado su solicitud con el compromiso de utilizar los dos idiomas oficiales, ejemplares de la documentación generada que acrediten dicho uso.

2.– A la vista de la documentación aportada, el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes procederá a dictar la oportuna resolución de liquidación, en la que, en su caso, señalará la cuantía de la subvención ya abonada cuyo reintegro procede, otorgando, en este supuesto, un plazo de dos meses, a contar desde el día de recepción de la resolución de liquidación, para efectuarlo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación o bien recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de marzo de 2003.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-1654

AGINDUA, 2003ko martxoaren 14koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, «Prestige» petroliontziak izandako istripuak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ematea arautu duena.

«Prestige» petroliontziak pasa den azaroaren 13an jasandako istripuaren ondorioz berariazko eta premiazko hainbat ekintza bideratu dira, hidrokarburoen kutsadurak ingurunean sortutako kalteei aurre egiteko.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-1654

ORDEN de 14 de marzo de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la concesión de ayudas económicas destinadas a los afectados por el accidente del buque petrolero «Prestige».

Como consecuencia del accidente sufrido por el buque «Prestige» el pasado día 13 de noviembre, se han llevado a cabo una serie de actuaciones excepcionales y urgentes, dirigidas a mitigar el impacto medioambiental en las zonas afectadas por la contaminación de hidrocarburos producida.